IRAGARPENA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zigor-espediente hauetan Segurtasun Sailburuordearen Kabinetearen zuzendariak emandako Erabaki Proposamenak jakinarazteko dena. 15071

IRAGARPENA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren zigor-espedienteak irekitzen dituzten Herritarren Segurtasunerako zuzendariaren Erabakiak jakinarazteko dena. 15072

IRAGARPENA, ondorengo zigor-espedienteetako errekurtso arruntari erantzunez hartutako erabakia jakinarazteko dena. 15073

ANUNCIO, por el que se notifican las Propuestas de Resolución del Director del Gabinete del Viceconsejero de Seguridad, instructor de los expedientes sancionadores que abajo se indican, incoados en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 15071

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de Seguridad Ciudadana, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 15072

ANUNCIO por el que se notifica la resolución del recurso ordinario de los siguientes expedientes sancionadores. 15073

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-3677

AGINDUA, 1998ko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 1997ko ekainaren 27ko Aginduaren 24.4. atala aldatzen duena. Azken Agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan batxilergoaren ezarketa orokorra arautzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1997ko ekainaren 27an emandako Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan batxilergoaren ezarketa orokorra arautzen du.

Ikasgairen batean balorazio positiborik lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi batean beste proba bat egiteko eskubidea daukatela ezartzen du Agindu horren 24.4. atalak.

Aipatutako atalak, halaber, proba hori ebaluazioaren azken saioa amaitu eta gutxienez hilabetera egin beharko dela ezartzen du.

Adierazitako epe horrek, eskola-aldi arrunta azkarregi bukatzera behartuko lituzke aparteko deialdia ekainean egiten duten ikastetxeak, eta horrek asko kaltetuko lioke ikasleari, ikasturteko helburuak betetzeko, klase nahikoa jasotzeko daukan eskubideari dagokionez.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-3677

ORDEN de 21 de julio de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se modifica el artículo 24.4 de la Orden de 27 de junio de 1997 que regula la implantación generalizada del Bachillerato en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Orden de 27 de junio, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, regula la implantación generalizada del Bachillerato en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 24.4 de la citada Orden establece el derecho de los alumnos que no hayan obtenido valoración positiva en alguna materia a la realización de una prueba en convocatoria extraordinaria.

El mencionado artículo establece asimismo que la citada prueba deberá realizarse al menos un mes después de la sesión final de evaluación.

El plazo anteriormente señalado obligaría, a los centros que efectuaran las pruebas de la convocatoria extraordinaria en el mes de junio, a finalizar con excesiva anticipación el periodo lectivo ordinario, lo cual perjudicaría notablemente el derecho del alumnado a recibir un número de clases suficiente para cumplir los objetivos del curso.

Hortaz, zentzuzko epea zehaztu behar da, ikasleak ikasgairen batean balorazio positiborik lortu ez duela dakienetik aparteko proba egiten duenera arte denbora nahikoa egongo dela bermatu eta, era berean, ikasturtearen eskola-aldi arruntean eskola-egun nahikoa izatea ahalbidetuko duena.

Hori guztia dela eta, honakoa

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1997ko ekainaren 27an emandako Agindua aldatzea. Agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan batxilergoaren ezarketa orokorra arautzen da. Aipatutako atala honela geratzen da:

> «24.4. atala.– Ikasgairen batean balorazio positiborik lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi batean beste proba bat egiteko eskubidea izango dute. Proba hori ebaluazioaren azken saioa amaitu eta gutxienez hogei egun naturalera egin beharko da».

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Hezkuntza Sailburuordetzari eta Ikastetxeen Zuzendaritzari ematen zaie Agindu hau interpretatzeko, aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak ezartzeko baimena. Xedapen horiek bakoitzak bere eskumenen esparruan emango ditu.

*Bigarrena.–* Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Se debe, por consiguiente, determinar un plazo prudencial, que - garantizando un periodo de tiempo suficiente entre el momento en que el alumno conoce que no ha obtenido valoración positiva en alguna materia y el momento de la realización de la prueba extraordinaria - permita asimismo disponer del número de días de clase necesarios durante el periodo lectivo ordinario del curso.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se modifica el apartado 4 del artículo 24 de la Orden de 27 de junio de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, que regula la implantación generalizada del Bachillerato en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El citado apartado queda redactado de la forma siguiente:

> «Artículo 24.4.– Los alumnos que no hayan obtenido valoración positiva en alguna materia tendrán derecho a una prueba en convocatoria extraordinaria, que se realizará, al menos, veinte días naturales después de la sesión final de evaluación».

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza a la Viceconsejería de Educación y a la Dirección de Centros Escolares a dictar, en el ámbito de sus respectivas competencias, cuantas disposiciones sean necesarias para la interpretación, aplicación y desarrollo de la presente Orden.

*Segunda.–* Esta Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 1998.

El Consejero de Educación, Universidades
e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.